

KORRONTZI BENEFIC



Agus Barandiaranek 2004an sortu zuen **KORRONTZI** folk musika taldea Mungian (Bizkaia). Musika tradizionala hamaika proiektutan nahastu du, beti Korrontzi taldea zela gidari (Korrontzi Dantzari, K. Symphonic Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin, K. Band musika bandekin, Oinkari Dantza taldearekin egindako lanak...).

Proiektu berriak Benefic du deitura eta horretarako **TDH-GIZAKIEN LURRA** fundazioarekin eta **AITZINA-AEFAT** elkartearekin batera Korrontzi taldeak bultzatu du ekimena. Ez da disko eta kantu bat bakarrik, sustengu ekonomikoa emango zaie elkarte hauen bidez gaixotasun desberdinak dituzten umeei. Haur horiek egindako marrazkiekin hamar postal egin dira zabalkundea gehitzeko "benefic" elkartasun ekintzari. Hau dio Agus Barandiaranek: "esaten da musikak eragin harrigarria daukala gure burmuinean. Musikak daukan indarra guztion barnean dauka eragina, gure barneak astinduz, hunkituz eta gure bihotzak alaituz. Horrela sentitzen dugu guk Korrontzi taldearen musika eta beronen bitartez eskaini nahi diegu gure laguntza munduan dauden hainbat haur gaixoei; gure musika tradizionalaz baliatuz, gure apurtxoak jarri nahi dugu haien bizipozerako, musikak norberarengan lortzen duena beste ezerk ez baitu lortzen".

TDH-Gizakien Lurra, Euskal Herria, 1997
(<http://www.tdh-gizakienlurra.org>)

Laguntza zuzena babesik gabeko haurrei. Politika, arraza, konfesionaltasuna eta sexua kontuan hartu gabe. Gizakien Lurra irabazi-asmorik gabeko fundazio bat da, eta 1960an Lausanen (Suiza) sortu zen "Terre des hommes" nazioarteko mugimenduaren parte.

AITZINA-AEFAT, Vitoria-Gasteiz, 2010
(www.aitzina.org / www.aefat.es)

Ataxia-telangiectasiak eragindakoei laguntzeko taldea. Irabazi-asmorik gabeko elkartea da, zein gaixotasunak jotako pertsonen eta haien familiei bizi kalitatea hobetzeko zerbitzuak eskaintzen dien eta gaixotasunari buruzko informazioa eman eta zabalitzen duen lekuko ikuspegi batetik.

KORRONTZI BENEFIC proiektua Agus Barandiaranek ideiatu eta zuzendu du. "Emaioгу bostekoa" abestiaren musika eta letra Agus Barandiaranek eta Xabier Zabalak egin dute. 2016ko azaroaren 3 eta 4an grabatu du Donostiako Elkar estudioan Victor Sanchez soinu teknikariak. Nahasketak eta masterizazioa Cesar Ibarretxek egin ditu (Keep Rollin' studios, Bilbo). Testuak: Agus Barandiaran eta Izaskun Iturri. Haurren marrazkiak eta argazkiak: TDH-Gizakien Lurra eta Aitzina-Aefat. Ondoren kantuak izan dituen laguntzaileak: Xabier Berasaluze "Leturia":(panderoa eta koruak), LM Moreno "Pirata" (tronpeta, tronboia, saxofoi tenorea eta baritonoa). Donostiako Ekintza ikastolako "Txiki" abesbatzaren prestatzaileak Marina Lerchundi Arileta eta Elena Arandia Jauregui izan dira. Pirritx eta Porrotx -Aiora Zulaika eta Joxe Mari Agirretxe (ahotsak). Xabier Zabala (zuzendaritza musikala eta konponketak).

KORRONTZI
Agus Barandiaran: trikitixa eta ahots nagusia
Ander Hurtado de Saratxo: bateria eta txalaparta
Kike Mora: baxu elektrikoa
Alberto Rodríguez: gitarra eta oktabatutako mandolina

web: www.korrontzi.net
telf.: (+34) 618 072 076
email: korrontzi@gmail.com korrontzidantzan@gmail.com
facebook: www.facebook.com/Korrontzi-Folk-960901977277922
twitter: twitter.com/Korrontzi

KORRONTZI BENEFIC datozen kontzertuak

Abenduaren 27an 19:00etan Mendizorroza Kiroldegia, Aitzinafolk jaialdia (Gasteiz)
Abenduaren 29an 20:00etan Campos Antzokia (Bilbo)
Abenduaren 30ean 20:00etan Soreasu Antzokia (Azpeitia)

EMAIOGU BOSTEKOA

Herri oso baten hauspoa
bihurtzen da neure trikitixa,
Kantauritikan hegoaldera
ume txiki baten irrifarra.
Zurrun zurrunkatuz, ametsak abestuz
gora behera kaletik doa,
bi begi txikien tristura
alaitasuna da behar dutena.
Tiri kiti triki, urru kutu truku
pandero zaharraren soinu,
laguntza behar duen esku bat
emaioгу denok bostekoa.
Kanta bat kantatzen, letra bat abesten
firin faran mila zorian,
agur esan eta bagoaz
kopla zahar batekin aio gabon.



aitzina



Tdh - Gizakien Lurra

baga-biga
MUSIKA IDEIAK
telf. 618 072 076-026
www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus